

KOMUNIKAZIOETAKO OINARRIZKO 10 KONTZEPTU



RACK

Hitzez hitz, "apalategi" gisa itzuliko genuke ingelesetik. IKTen arloan, elementu elektronikoak jartzeko armairu espezifikoko bat da; gida bertikalak ditu, elementuak eurak edo elementu horien erretiluak ainguratzeko edo torlojutzeko. Eraikin edo solairu bateko telekomunikazioetako elementu zentral guztiak instalatuta egon ohi dira bertan.




KABLE EGITURATUAK




Eraikin edo solairu batean instalatuta dauden kable eta konektoreen multzoa, sare informatiko bat edo telekomunikazio-sare bat ezarri ahal izateko. Hor sartu ohi dira komunikazio-rackean instalatutako adabaki-panela, horma, sabai aizun edo lurzoruan barrena kanalizatuta doazen kableak, eta erabiltzailearen ekipo informatiko edo telefonikoak konektatzeko lanpostuen inguruan kokatzen diren konektoreak.

ADABAKI-PANELA

Kable egituratuen elementu zentrala, normalean rack baten barruan instalatua. Bertan, konexio ugari egin daitezke, erabiltzaileen postuen konektore guztiak hari konektatuta baitaude. Haren helburu nagusia da leku zentral bat izatea, kable laburrak (loturak) behar bezala jarri eta erabiltzaile bakoitzari behar dituen ekipo eta funtzioak eskaini ahal izateko.



SWITCH



Hitzez hitz, "kommutadore" edo "etengailu" gisa itzuliko genuke ingelesetik. IKTen arloan, normalean solairu edo eraikin berean dauden elementu desberdinak elkarri konektatzeko elementu bat da. Switch baten bidez elkarri konektatutako elementuek sareko bideratze bateragarri bat izan behar dute, eta ez zaio murriztapenik aplikatzen haien arteko trafikoari.

ROUTER

Hitzez hitz, "bideratu egiten duena" gisa itzuliko genuke ingelesetik. IKTen arloan, desberdin bideratuta dauden sareak elkarri konektatzeko aukera ematen duen elementu bat da. Normalean, bi erakunderen sareak elkarri konektatzeko edo erakunde baten sarea Internetera konektatzeko erabiltzen da.



SUEBAKIA



Hitzez hitz, "suhesi" gisa itzuliko genuke ingelesetik. Tradizioz, eremu zabal bat da, landarediarik gabekoa, suteak zabal ez daitezken. IKTen arloan, datuen trafikorako kontrol- eta barrera-puntua den elementu bat da, eta, horri esker, "sute" informatikoak (hots, erasoak, birusak, etab.) zabaltzea eragozten da. Suebakiaren lehenengo belaunaldiak sarbide-arauak zituzten bideratzaileak ziren, elkarri konektatzen ziren erakundearen arteko trafikoa mugatzeko edo kontrolatzeko.

SEGURTASUN-ZONAK

Suebaki baten bidez elkarri konektatuta dauden azpisareetako bakoitza. Ohikoenak LAN, DMZ eta Internet dira.



LAN



Local Area Network-en (sare lokala) akronimoa. Erakunde baten sare korporatiboaren barneko zatia da; bertan, erabiltzaileak daude, baita haiek erabil ditzaketen zerbitzu eta funtzio gehienak ere. Erakundeak berak kontsumitzeko baliabideak dituen sarearen zatia izan ohi da.

DMZ

Demilitarized Zone-ren (zona desmilitarizatua) akronimoa. Segurtasun-zonak dira; bertan, erakunde baten barne- nahiz kanpo-bezeroek erabiltzen dituzten elementu edo funtzioak daude. Web-zerbitzariak edo posta elektronikoko bidezko zerbitzariak izan ohi dituzte, hornitzaile edo bezeroek erabiltzeko, eta, horrenbestez, kanpoko arriskuen pean dago. LAN sarearen edo barne-sarearen kanpoaldea daude, kalteak gutxiago zabaltzeko, baten bati benetan eraso eginez gero.



INTERNET



International Network-en (nazioarteko sarea) laburdura. Erabiltzaileak eta IKTen zerbitzuak elkarri konektatzeko mundu-mailako protokolo estandarizatuak erabiltzen dituzten telekomunikazio-sareen multzoa. Haren jatorria ARPANet sarea da, 1969ren amaieran sortua, AEBko defentsa-departamentuak sustatutako ikerketa-proiektu gisa. 1982an, TCP/IP protokolo estandarizatuak ezartzearekin batera, sarea ireki egin zen, mundu osoan barrena zabalduta, eta esponentzialki handitu. Hasiera xume hartako bitxikeria gisa, 90eko hamarkadaren hasieran CERN (Ikerketa Nuklearrerako Europako Kontseilua) zentroak une hartan mundu osoan zeuden webgune GUZTIEN estekak bildu zituen orri batean.